

# KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO- ORGANOAREN OROITIDAZKIA

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOA  
2011-2014



**Kontratuen inguruko Errekurtsoen  
Administrazio Organoa**  
Órgano Administrativo  
de Recursos Contractuales

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak*  
sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

- Argitaraldia:** 1goa, 2015eko uztaila
- Ale-kopurua:** 100 ale
- ©** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ogasun eta Finantza Saila
- Internet:** [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)
- Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
- Diseinua:** EkipoPO
- Inprimaketa:** Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián 1, Vitoria-Gasteiz 01010
- Lege gordailua:** VI

# AURKIBIDEA

I. SARRERA .....	4
I.1. SORRERA	4
I.2. OSAERA ETA BALIABIDEAK	5
I.2.1. Osaera	5
I.2.2. Aurrekontua	6
I.2.3. Jendeari kasu egiteko orduak eta lekua	6
I.3. EREMU SUBJEKTIBOA	6
I.4. FUNTZIOAK	7
I.5. JARDUERA INSTRUMENTALA	8
I.5.1. Baliabideak kudeatzeko programa informatikoa	8
I.5.2. KEAOn webgunea	8
II. KEAOREN JARDUERARI BURUZKO DATUAK (HASIERATIK 2014RA BITARTEKOAK) .....	9
II.1. AURKEZTUTAKO ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA	9
II.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ETA URTEAREN ARABERA	10
II.3. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ETA URTEAREN ARABERA	12
II.4. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, APELATUTAKO EGINTZAREN ETA URTEAREN ARABERA	14
II.5. ERREKURTSOEN EBAZPENAREN IZAERA, URTEAREN ARABERA	16
II.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA	18
II.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA	18
II.8. AURKEZTUTAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA	19



# I. SARRERA

## I.1. SORRERA

Abenduaren 23ko 5/2010 Legeak sortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (aurrerantzean, KEAO), Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, hain zuzen ere, zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez. Hasiera batean, kide bakarreko organo bat zen, baina, xedapeneko 14. paragrafoak dioenez, haren «eskumeneko diren auzien bolumenak eta berariazkotasunak hala eskatzen edo aholkatzen dutenean, Eusko Jaurlaritzak erabaki ahal izango du organoaren kide bakarreko izaera aldatzea eta kide anitzeko organo bihurtzea [...]». Horretarako, dagokion dekretua egin beharko du Eusko Jaurlaritzak, eta Eusko Legebiltzarrari haren berri eman». Nolanahi ere, kide bakarreko organo bat izan da orain arte, eta ez dago ezaugarri hori aldatzeko aurreikuspenik.

Hain zuzen ere, 5/2010 Legeari buruzko oroitidazkiak azaltzen du zergatik sortu zen kide bakarreko organo gisa. Haren arabera, «mandatu hori betetzeko, kontuan izanda figura hori berria dela, gastu publikoaren alorrean austeritate-irizpidea dela nagusi eta erabilgarri dauden baliabideak arrazionalizatu beharra dagoela, kide bakarreko organo bat sortzea erabaki da. Haren eskumenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko botere esleitzailen apelatzeko moduko egintzak ez ezik, honako hauek ere hartzen ditu barnean: EAEko lurraldean dauden toki-administrazioetako botere esleitzailen apelatzeko moduko egintzak; betiere, udalerrietako biztanleria 50.000 pertsonakoa edo hortik beherakoa bada».

Hau da, honako hauek dira Organoa kide bakarrekoa izateko arrazoiak: batetik, figuraren berritasuna eta sortu zenean haren arrakastari buruz zegoen ziurtasunik eza eta, bestetik, erabilgarri zeuden baliabideak gastatzeko eta arrazionalizatzeko austeritate-politika.

Administrazio-organo bat den aldetik, kontratazio publikoaren gaineko eskumena duen sailaren barruan dago (egun, Ogasun eta Finantza Sailaren barruan), baina ez dago haren egitura hierarkikoaren barruan; horixe xedatzen du apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuak, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 2.3.j) artikuluan.

Kontratazio publikoaren berme-sistema bete egiten dela ziurtatzeko administrazio-organoa den aldetik, berriz, bere eskumenen esparruan, horrelako organoek dituzten berezko



ezaugarriak ditu, hala nola bere eskumenak erabiltzeko independentzia funtzionala (lotura hierarkikorik eza edo inoren aginduak bete behar ez izatea), titularraren espezializazioa eta agintaldiak irauten duen bitartean titularra ezin aldatua. Gainera, KEAOri dagokionez, titularrak kargu horretan bakarrik dihardu, eta, areago, haren lansaria Organoa sortzeko arauak finkatzen du.

## I.2. OSAERA ETA BALIABIDEAK


### I.2.1. Osaera

Bost pertsonak osatzen dute KEAOkoko lantaldea:

- Titularrak.
- Aholkularitza juridikoaren bi arduradunek.
- Organoko Idazkaritzaren ardura duen aholkulari juridiko batek.
- Administrari batek.

Gainera, informatikaria den administrari batek kudeaketa-tresna informatikoa ezartzen laguntzen dio Organoari.

Hona hemen egitura horren organigrama:



### I.2.2. Aurrekontua

Kontratazioaren gaineko eskumena duen sailari atxikita dago KEAO, eta haren aurrekontuaren kontura ordaintzen ditu bere lana egiteko beharrezko baliabide materialak. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek zehaztu zehazten dituzte KEAOn langileria-gastuak: 2014an, adibidez, 331.514 €-koak izan ziren guztira, eta 6114 aurrekontu-programaren 5. sekzioaren kontura ordaindu ziren, 09. zerbitzuaren kontura.

### I.2.3. Jendeari kasu egiteko orduak eta lekua

Eusko Jaurlaritzaren egoitzan ditu bulegoak Organoak. Hain zuzen ere, honako hau da helbidea: Donostia kalea 1 — 01010 Vitoria-Gasteiz.

Jendeari kasu egiteko eta errekurtsuak erregistratzeko ordutegia, berriz, honako hau da: astelehenetik ostegunera, 08:30etik 13:00etara eta 14:00etatik 16:30era bitartekoa; ostiraletan, 08:30etik 14:00etara bitartekoa; eta, udan (ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean), 08:30etik 14:00etara bitartekoa.

## I.3. EREMU SUBJEKTIBOA

Abenduaren 23ko 5/2010 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriko 2. paragrafoak dioenez, KEAOk «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta erkidego horren lurraldean dauden toki-administrazioetan» betetzen ditu bere eginkizunak.

Hala ere, «Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean sartutako 50.000 biztanletik gorako udalerriek beren toki-eremuko eta bakoitzaren sektore publikoko errekurtsuak ebazteko eskumena izango duen beren organoa sortu ahal izango dute», Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 41. artikulua arautzen dituen baldintzetan. Alde horretatik, aipatzekoa da ezaugarri hori duten Euskadiko sei udalerriek ez dutela baliatu beren organoa sortzeko aukera.

Ilido berean, «harik eta Eusko Legebiltzarrak eta instituzio horrek sortutako erakundeek bakoitzaren eremuaren barruan kontratazio-alorreko errekurtsu bereziak ebazteko organo eskuduna sortzen ez duten arte [...], Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak bere eginkizunak beteko ditu kontratu-errekurtsua jartzea eragin dezaketen egintzei buruz, betiere erakunde horietako botere adjudikatzaileetatik atereak badira». Bada, ez Legebiltzarrak, ez hark sortutako erakundeek ez dute erabili orain arte errekurtsuak ebazteko beren organoak sortzeko aukera.

Foru-aldundiak eta lurralde historikoetako batzar nagusiak, aldiz, KEAOn eremu subjektibotik kanpo daude. Hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 41. artikulua hartu dute beren baitan beren auzitegiak sortzeko oinarritzat (erakunde horien berezitasunak, beren burua antolatzeak duten ahalmena eta diseinu-askatasuna), eta, horretarako, arau hauei jarraitu diete:



- Araban, 44/2010 Foru Dekretua, irailaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboaren sorkuntza onartzen da (ALHAO, 115, 2010eko urriaren 8koa, 11119-11125. orr.).
- Bizkaian, 102/2010 Foru Dekretua, irailaren 29koa, kontratuei buruzko errekurtsoen auzitegi forala sortzen duena (BAO, 197, 2010eko urriaren 13koa, 24537-24544. orr.).
- Gipuzkoan, 24/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoa (GAO, 203, 2010eko urriaren 22koa, 2-9. orr.).

#### I.4. FUNTZIOAK

Zortzigarren xedapen gehigarriko 3. paragrafoak dioenez, KEAOn funtzioek honako inpugnazio-eremu hauek hartzen dituzte barnean:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 40. artikulua arautzen dituen kontratu eta egintzen aurka kontratazioaren alorrean aurkeztu diren errekurtsu bereziak ebaztea.
- Errekurtsoa aurkeztu aurretik eskatzen diren behin-behineko neurriei buruz erabakitzea, errekurtsoa izapidetzeko prozedurak berezkoa duen ahalmen bat (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 43. artikulua).
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 37.1. artikulua kontratuak deuseztatzeko arautzen dituen kasu berezietan oinarritutako deuseztasun-auziak ebaztea.
- 31/2007 Legeak, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio- prozedurei buruzkoak, 101-108. artikuluetan kontratuak esleitzeko arautzen dituen prozeduren esparruan eta 109-111. artikuluetan arautzen dituen deuseztasun-auzien esparruan aurkeztu diren erreklamazioak ebaztea.
- Urriaren 30eko 31/2007 Legeak arautzen dituen kontratazio- eta erreklamazio-gaien kontrako errekurtsu bereziak aurkezteko zilegitasuna dutenek eskatzen dituzten behin-behineko neurriak hartzeari buruz erabakitzea.



## I.5. JARDUERA INSTRUMENTALA

### I.5.1. Baliabideak kudeatzeko programa informatikoa

Hasieratik bertatik, KEAOk helburutzat finkatu zuen botere esleitzailleekiko, errekurtsogileekiko eta gainerako interesdunekiko komunikazioa azkarra eta fidagarria izatea. Ildo horretan, kudeaketa-aplikazio informatiko bat garatu eta ezarri du, Y96A, errekurtsok izapidetzeko prozesuko izapide guztiak haren bidez kudeatzeko. Funtzio hauek betetzen ditu aplikazioak:

#### *Botere esleitzailleak*

Botere esleitzailleek aplikazio informatikoaren bidez helarazten dituzte kontratazio-espeditentea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 46.2. artikulua arautzen duen txostena eta, kontratazio-organoaren aurrean aurkezten bada, errekurtsoa bera, konfiantzazko giroan. Espedienteak izapidetzeko prozedura zer egoeratan dagoen ikus dezakete, eta, gainera, KEAOn aurrean beren izenean jardun dezaketen langileak gehi, ken eta alda ditzakete.

#### *Errekurtsogileak eta interesdunak*

Eragile ekonomikoek telematikoki aurkez ditzakete KEAOn aurrean kontratazioaren, erreklamazioaren eta deuseztasun-azkien alorreko errekurtsok bereziak, baita alegazioak ere, prozeduretan interesdun agertzen badira. Gainera, espedienteak izapidetzeko prozedura zer egoeratan dagoen ikus dezakete.

### I.5.2. KEAOn webgunea

KEAOk webgune bat du Euskadiko kontratazio publikoaren atarian, <http://www.contratacion.euskadi.eus> helbidean; haren bidez jartzen da harremanetan botere esleitzailleekin eta errekurtsok aurkezten dituzten eragile ekonomikoekin.

Gainera, webgune horretan bada KEAOn ebazpenen datu-base bat: batetik, bilatzaile batek ebazpenen dokumentuetan hitz edo esaldiak bilatzeko aukera ematen du; bestetik, zerrenda batek urtearen eta zenbaki korrelatiboaren arabera ordenatuta dakartza ebazpen guztiak; azkenik, beste zerrenda batek gaiaren arabera ordenatuta dakartza —oroitidazki honi erantsitako doktrina-bilduman bigarren digituaren mailaraino daudenei dagozkie gaiak—.





## II. KEAOREN JARDUERARI BURUZKO DATUAK (HASIERATIK 2014RA BITARTEKOAK)

### II.1. AURKEZTUTAKO ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA

KEAO 2011ko ekainaren 3an hasi zen jardunean. Bada, honako hauek izan dira ordutik 2014ra bitartean aurkeztutako errekurtsoen eta emandako ebazpenen guztizko kopuruak, urtearen arabera:

#### 2011. URTEA

- Aurkeztutako errekurtsoen kopurua, guztira: 68
- Emandako ebazpenen kopurua, guztira: 26

#### 2012. URTEA

- Aurkeztutako errekurtsoen kopurua, guztira: 125
- Emandako ebazpenen kopurua, guztira: 104

#### 2013. URTEA

- Aurkeztutako errekurtsoen kopurua, guztira: 128
- Emandako ebazpenen kopurua, guztira: 135



## 2014. URTEA


- Aurkeztutako errekurtsoen kopurua, guztira: 169
- Emandako ebazpenen kopurua, guztira: 134

Esan bezala, 2011ko ekainean hasi zen jardunean KEAO, eta, hortaz, lehenengo urteko kopuruak seihileko pasatxokoak dira. Bada, datu hori kontuan izanik, errekurtsoen guztizko kopurua antzekoa izan da lehenengo urteetan. Hala ere, aipatzekoa da 2014an aurkeztutako errekurtsoen kopurua, % 32 hazi baita 2013koaren aldean; seguru asko, errekurtsuak aurkezten dituzten eragile ekonomikoek hobeto ezagutzen dituztelako KEAO bera eta haren doktrina.


## II.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ETA URTEAREN ARABERA

«Sozietate publikoen» atalean, tokiko sektorekoak zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ageri dira. «Beste administrazio publiko batzuen» atalean, berriz, EHU dago funtsean, baina badira beste erakunde batzuk, hala nola Legebiltzarra eta administrazio batek baino gehiagok eratzen dituzten partzuergoak.


## 2011. URTEA




## 2012. URTEA




## 2013. URTEA



## 2014. URTEA




Hona hemen, taula batean, botere esleitzaille bakoitzaren kontra aurkeztutako errekurtsoen kopuruak, urtearen arabera:




### II.3. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ETA URTEAREN ARABERA

Ondoko grafikoetan, kontratu motaren arabera daude sailkatuta errekurtsoen ehunekoak. Alde horretatik, zerbitzu-kontratuen aurka aurkeztu dira errekurtsu gehien, nabarmenki, eta, jarraian, askoz ere gutxiago, hornidura-kontratuen aurka. Era berean, aipatzekoa da obra-kontratuen aurka aurkeztutako errekurtsoen kopuru eskasa. Bestalde, «beste batzuen» atalean, KEAOk administrazio-kontratu berezizat hartzen dituenak ageri dira.


2011. URTEA




### 2012. URTEA



### 2013. URTEA




### 2014. URTEA




## II.4. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, APELATUTAKO EGINTZAREN ETA URTEAREN ARABERA

Ondoko grafikoan, 2011tik 2014ra bitartean errekurtsu, erreklamazio eta deuseztasun-  
auzi berezien bidez apelatutako egintzen ehunekoak ageri dira. «Beste batzuen» atalean,  
errekurtsoen gaia ez diren egintzak ageri dira.


2011. URTEA




2012. URTEA



### 2013. URTEA




### 2014. URTEA




## II.5. ERREKURTSOEN EBAZPENAREN IZAERA, URTEAREN ARABERA

Ondoko grafikoan, urte bakoitzean emandako ebazpenen izaera ageri da. Alde horretatik, nabarmentzekoa da ezetsitako eta baietsitako errekurtsoen kopuruak ez direla aldatu nabarmen; onartu gabeko errekurtsoen kopurua, berriz, alderantziz: % 20koa zen 2011n, eta % 10ekoa, berriz, 2014an.

2011. URTEA




2012. URTEA






### 2013. URTEA




### 2014. URTEA



## II.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA


Hona hemen, grafiko batean, KEAO jardunean izan den urteetan urte bakoitzean eta hilabete bakoitzean aurkeztutako errekurtsoen kopuruak:



## II.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA

Honako hau izan da, batez beste, KEAOk errekurtsu bat erregistratu eta hura izapidetzen hasi denetik ebatzi egin duen arte igaro den epea:

- 2011. urtea: 118 egun natural.
- 2012. urtea: 130 egun natural.
- 2013. urtea: 83 egun natural.
- 2014. urtea: 36 egun natural.



## II.8. AURKEZTUTAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA

Hona hemen, taula batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren aurrean aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopuruak, urtearen arabera; alde horretatik, honako hau izan da errekurtsoak sailkatzeko irizpidea: zer errekurtso bereziren ebazpena inpugnatzen den, errekurtsu hori zer urtetan aurkeztu den.

### 2011. URTEA

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: 5
- Izaera
  - Neurri batean baietsiak 2
  - Ezetsiak 2
  - Atzera eraginak 1
- Erabakien guztizko kopurua 5

### 2012. URTEA

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: 3
- Izaera
  - Ezetsiak 2

— Erabakien guztizko kopurua	2	
— Ebazteko geldituak		1

### 2013. URTEA

— Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua:		9
— Izaera		
— Ezetsiak	2	
— Atzera eraginak	3	
— Onartu gabekoak	1	
— Erabakien guztizko kopurua		6
— Ebazteko geldituak		3

### 2014. URTEA

— Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua:		22
— Izaera		
— Atzera eraginak	4	
— Prozeduraren iraungitzea	1	
— <b>Erabakien guztizko kopurua</b>		5
— Ebazteko geldituak		17

Ondoko tauletan, honako hauek ageri dira: 2014ko abenduaren 31ra bitartean aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopuruak, horrelako errekurtsoek KEAOn aurrean aurkeztutako errekurtsoen guztizko kopuruaren barruan osatzen dituzten ehunekoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak hartutako erabakien izaera.

2011-2014

	Admin. auzi-errek. guztizko kopurua	Kontratuen ing. errek. guztizko kop.	%
<b>2011</b>	<b>5</b>	<b>68</b>	<b>7,35</b>
<b>2012</b>	<b>3</b>	<b>125</b>	<b>2,40</b>
<b>2013</b>	<b>9</b>	<b>128</b>	<b>7,03</b>
<b>2014</b>	<b>22</b>	<b>169</b>	<b>13,02</b>
<b>GUZT.</b>	<b>39</b>	<b>490</b>	<b>7,96</b>

ERABAKIEN IZAERA, URTEAREN ARABERA

Izaera	2011	2012	2013	2014	TOTAL	Admin. auzi-errek. barruko %
Neurri batean baietsiak	2	0	0	0	2	5,13
Ezetsiak	2	2	2	0	6	15,38
Atzera eraginak	1	0	3	4	8	20,51
Onartu gabekoak	0	0	1	0	1	2,56
Prozedura iraungita	0	0	0	1	1	2,56
Erabekirik ez	0	1	3	17	21	53,85
<b>GUZTIRA</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>9</b>	<b>22</b>	<b>39</b>	<b>100,00</b>

